

## **Martin Ugalde: "Gero eta argiago ikusten dut etorkizuna"**

Koldo Aldabe

*Euskaldunon Egunkaria (Igandeko KZ), 1998-11-08: 2.*

Bere burua kazetaritzat duen gizon polifazetiko honentzat EGUNKARIA da bere langintzan egin duen obra nagusia. Etxe honek gauza onak baino ez omen dizkio eman Martin Ugalderi, buruhaustea ere izan dituen arren. Duela urtebete argitaratu genuen elkarrizketan honako hauek esan zituen, besteak beste: "EGUNKARIA-ri bizitzen utzi diote, hiltzea baino hobe zela pentsatu zutelako, ez maite gaituztelako. (...) Herri honetan sektario batzuk gara, baina, hala ere, EGUNKARIA onartua izatea lortu dugu". Gaur egun ere uste hori dauka, baina –abardura batzuekin: "Gauzak aldatzen ari direla uste dut. Eta gero eta argiago ikusten dut etorkizuna; ez EGUNKARIA-rena bakarrik, baita euskal kulturaren eta euskaldunona ere. Uste dut batzuk konturatu direla EGUNKARIA behar-beharrezkoa dela. Beste batzuek, berriz, ikusi dute EGUNKARIA-k bizirik dirauela. Gauzak aldatzen hasi dira".

Martinentzat sekula ez da berandu, eta Txillidaren eta Oteizaren artekoa ere hor dago. Etorkizunari begira baikor izan da beti, eta hala izaten jarraitzen du. "Gure herria ez dut sekula ikusi gaur bezain aurreratua. Hizkuntzari dagokionez, euskarak badu etorkizunik, begi-bistan da. Kulturari bide berriak irekitzen ari dira. Baikor egoteko nahikoa arrazoi badira". Baita politikan ere: "Beste urrats bat egitera goaz, beste mundu batean sartzerara, Europan. Horregatik, itxaropentsua naiz. Ez nuen pentsatzen sekula horrela egongo ginenik".

Autodeterminazioari dagokionez, iritziz aldatu du Martin Ugaldek azken urteetan. "Begira, duela hogeita urte, autodeterminazioaz-eta hitz egiten zenean, ni eta beste asko ez ginen fio. Beldur ginen herritarrei ahotsa emanda irten zitekeen emaitzaz. Ez genuen argi ikusten. Gaur, ordea, ikusi dugu azken hauteskundeetan autodeterminazioaren aldeko apustua egin dutenak irabazle irten direla. Hori ezin nuen imajinatu duela hogeita urte. Gauzak aldatu egin dira, bai. Gaur, euskaltzaleak, eskuinekoak eta ezkerrekoak indartsuago dira". Alderdi ez-abertzaleen inguruan ere gogoeta egin digu Martinez: "Sozialistak barne eztabaidan ari dira azken aldi hartu duten estrategia politikoa zuzena izan den aztertzeko. PPri buruz, berriz, zer esango dizut? Zakua ongi bete dute azken hauteskundeetan, baina aurrerantzean hustu egingo zaiela uste dut".